

## VITAL FUNDAZIOA EMAKUMEZKOEN IGERIKETA TXAPELKETAREN OINARRIAK

**Antolatzailea:** Vital Fundazioa da txapelketaren antolatzailea, eta Araban emakumezkoen kirola sustatzeko duen programaren barruko ekimena da hau.

**Helburua:** Emakumezkoen kirola sustatzea, batez ere, 9 eta 16 urte bitarteko nesken artean, Vitoria-Gasteizen eta Araban. Emakumezkoen kirola sustatzea, eskolaz kanpoko jarduera den aldetik ez ezik, lanerako irtenbide izan daitekeen aldetik ere, joko garbia eta lehiakortasun osasuntsua sustatuz.

**Kategoriak eta adinak:** Lau kategoria antolatuko dira:

BENJAMINAK (2010-2009)

ALEBINAK (2008-2007)

HAURRAK (2006-2005)

KADETEAK (2004-2003)

**Igerilekua:** Igerilariak Estadio Fundazioaren instalazioetako gazteentzako igerilekuan arituko dira lehian.

**Txapelketaren arauak:**

**MODALITATEAK:** ESTILO LIBREA ETA ERRONKA MODALITATEA

**TXAPELKETA-SISTEMA:** SERIEAK KATEGORIAREN ARABERA

**ARBITRAJEA:** Igerilekuan, epaile-lanak egiten arituko den arduradun bat egongo da.

**Sariak:** Parte-hartzaile guztiei oparituko zaie motxila bana, edaria eta programaren kamiseta. Gainera, txapelketaren irabazleek opari gehigarria eta domina jasoko dituzte.